

**Klasikoa,
baina
ausarta**

Koloreetan kontraste
handia bilatzen dugu ▶ 4



MARTIN ZABALA ▶ SAGARDOGILEA

«Aise edan eta beste tragoa azkar eskatzen duena da sagardo ona»

ADUNA ▶ Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurtengo saria jaso du Zabala sagardotegiak

SAGARDOA ▶ «Ahal dugun ondoen zaindu eta bertako sagarrekin egiten saiatzen gara» ▶ 6



Martin Zabala, alaba eskuetan duela, bere sagardotegian. IMANOL GARCIA



JOAQUIN ORTEGA ▶ KONPOSITOREA

«Tolosako Dianaren zatitxo bat entzuten da abestian»

Berak konposatu duen 'Tolosa-Irailaren 13a' bihar eskainiko du Tolosako Bandak ▶ 2

Joaquin Ortega. MADDI SOROA

TOLOSALDEA ▶

23 lagun epaitzen ari dira Gazteluko Kultur Etxearen auzian

Bi aldeek deklaratu dute; behin-betiko zigor eskaera gaur zehaztuko dute ▶ 6

TOLOSA ▶

Egungo bizimoduaren ohitura txarrak hizpide, Leidorren ▶ 4



ALEGIKO ZAHARREN EGOITZA
EDARITEGIA



Alegiko plaza • Tel.: 943 65 58 00

Gosariak, pintxoak, meriendak eta... **GIRO JATORRA!**

ARETO FUTBOLA ▶

Laskorainen
2. porrota,
Santurtziren
aurka

Hasierako okerrak konponduz egindako lanari etekina ateratzeko prest dira

ERREDAKZIOA

Tolosarreko esperientziadun bisitari gogor bat izan zuten lehengo larunbatean Usabalgo kiroldegian. «Betidanik talde sendo eta orekatua izan den» Santurtzi talde bizkaitarra, hain zuzen ere.

Lehenengo zatia oso orekatua suertatu zen, atsendaldian elektronikoa 0 eta 1ekoa erakusten baitzuen. Partidaren pisua kanpotarrek eman zuten minutu gehienetan, baina ikastolakoek ere izan zuten golak sartzeko aukerarik. Horietan argiena, Saldias kapitainaren jokaldi eder baten ostean Altunak huts egindakoa izan zen.

Bigarren zatian itxaropenetsu ekin zioten Egizabalen morroiek, baina santurtziarren bi «ziztadek» norgehiagoka oso maldan gora jarri zuten berehala, 3 eta 0 baitzioen markagailuak. Saldias abantaila murriztea lortu zuen 7 metroko distantzian jaurtitako penalti bikoitz bati esker. Bizkaitarrek, ordea, 3 goleko aldea berrezarri zuten markagailuan 2 eta 4eko arekin. Bosgarren bat ere egin zuten bizkaitarrek Altunak penalti bikoitz bat sare-ratu aurretik.

Oraindik minutu batzuk gelditzen zitzaizkien tolosarrei mirakulua gauzatzeko, baina santurtziarren seigarrenak itxaropen guztiak deuseztu zituen. Laskoraindarren hirugarrena eta azkena Barriolaren «magiadun oinetatik» irten zen.

MUSIKA ▶

Tolosako Bandaren
emanaldia Zerkausion

Zerkausi berrituko beirazko egituraren barnean eskainiko dute emanaldia bihar; 'Tolosa-Irailaren 13a' joko dute



Tolosako Musika Bandak Zerkausiaren inaugurazioan eskaini zuen emanaldiko unea. MADDI SOROA

JOAQUIN ORTEGA ▶ MUSIKARI ETA KONPOSITOREA

«Tolosako Dianaren
zatitxo bat entzuten da»

Canario ezizenez ezagutzen du jendeak Joaquín Ortega. Hernaniarra izan arren, oso lotura handia du Tolosarekin, ia 40 urte baitaramatza Iñauterietan txarangekin jotzen.

Nondik sortu zen Tolosa-Irailaren 13a obra egiteko ideia? Iaz, Gabon egunean Tolosako Bandak nik konposaturiko jota bat jo zuen, kontzertua entzuten ari nintzela, Antxon Elosegiren pasodoblearen zale amorratua denak esan zidan ea zergatik ez nuen pasodoble bat egiten 750. urteurrenaren inguruan. Animatu egin nintzen eta ia urte bete lanean pasatu ondo-

ren eta bandako zuzendariari erakutsi ondoren, obra amaitu nuen.

Zerk inspiratu zaitu?

Oso zaila da hori jakitea. Aurrena puska bat bururatzeko zaizu eta gero bestea, idazten jartzen zara eta guztia lotzen duzu. Lan handia eskatzen du.

Emaitzarekin gustura?

Bai, pozik nago emaitzarekin, gainera, obraren azken zatian Tolosako dianaren zatitxo bat entzuten da pasodoblearen kontraktuaren barnean eta polita geratu da. Oraindik, ordea, ez dut entzun.

Larunbatean entzungo duzu



MADDI SOROA

lehenengoz orduan pasodoblea?

Bai. Ilusioz nago. Gainera jende ezaguna ikusiko dut eta gusturaz nago. ◀

MADDI SOROA

Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko du bihar 19:30ean, Zerkausion. Ez da edonolako kontzertua izango, ordea, bi berrikuntzekin baita toz musikariak.

Berrikuntzetako bat, musika emanaldiaren tokia izango da, izan ere, Zerkausiaren erdialdean kokaturiko beirazko itxuraturan eskainiko dute kontzertua. Ez da lehenengo aldia Tolosako Musika Bandak Zerkausion jotzen duena, Zerkausiaren inaugurazioan, esaterako, bertan izan baitzen taldea. Berrikuntza, ordea, beirazko egituraren jotzean datza. Musikariak itxuraturiko kokatuko dira eta entzuleak kanpoan. Modu honetan Zerkausiaren akustika probatu nahi du taldeak eta «emaitza onak» lortzeko gogoz dago gainera.

Bigarren berrikuntza, joko dituzten piezei dagokio, izan ere, hiru berrikuntza eskainiko dituzte biharkoan bandako musikariek: James Hornerren *The Mask of Zorro*, Dimitri Shostakovichen *The second waltz* eta *Tolosa-Irailaren 13a*. Azken hau Joaquín Ortega, *Canario*, musikari eta konpositoreak 750. urteurrena dela eta, Tolosako herriari eskainitako pasodoblea da.

EGITARAUA ▶

Bihar izango da Tolosako Bandaren kontzertua Zerkausion, 19:30etik aurrera:

- ▶ *Tolosa-Irailaren 13a*: Joaquín Ortega, Tolosako herriari eskainia 750. urteurrena dela eta. Estreinaldia. Pasodoblea.
- ▶ *The Mask of Zorro*: James Horner. Estreinaldia.
- ▶ *The second waltz*: Dimitri Shostakovich. Jazz Suite 2.
- ▶ *El Caserio*: Jesus Guri. Fantasia.
- ▶ *Las Playas de Rio*: Kees Vlák. Lehenik trocadero, gero Ipanema (Bossa Nova) eta azkenik Copacabana (Manmó Sanba).

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nf



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GIZARTEA ▶

**Gaurtik hasita,
«asteburu mugitua»
Bonberenean**

E. EZEIZA

Asteburu honetarako agenda potoloa prestatu du Bonberenean. Hasteko, gaur gauean, 22:30etatik aurrera, Kerobia eta Etxek kontzertua eskainiko dute.

Bihar, 10:30ean Pirritx eta Porrotx pailazoez, *Maite zaitut* DVD berria aurkezten dute. Hori dela eta, Pirritx eta Porrotxek Bonberenea txarangarekin bat egingo dute Triangulotik Bonbereneara kalejiran joateko. Bestalde egun guztian zehar, graffiti erakustaldia izango da. Honez gain, 16:30etan VI. Skate Txapelketa hasiko da. Eta amaitzeko, 22:30ean, Bad Sound Sistem eta Codigo Norte taldeen kontzertua izango da. Bigarrenak, Gas-teiztik etorriko dira, beraien erritmoen berri emateko.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))
Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
- Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebrea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Ambulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzio klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitza autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurraremendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

KIROLA ▶

Egungo bizimoduaren ohitura txarrak mintzagai, Leidorren

Jarduera Fisikoa, Kirola eta Osasunaren Nazioarteko Kongresua atzo abiatu zen, punta-puntako hizlariekin

ESTI EZEIZA

Atzo hasi zen Jarduera Fisikoa, Kirola eta Osasunaren Nazioarteko Kongresua. Hala, lehenengo egunetik, kirolean eta medikuntza arloan izen handia duten adituak izan dira Tolosan. Horren adibide, atzoko hirugarren hitzaldia Sara Maldonado eta Sabino Padilla, EHUko irakasleek eskaini zutena. Hauek, *Sindrome Metabolikoa* zer den eta nondik datorren azaldu zuten, *Sindrome Metabolikoa: egungo bizimoduaren ondorioa* izenburupean. Egun bi portaera kontraesankor gailentzen dira: alde batetik, aktibitate eza eta sedentarismoa. Eta bestetik, gorputzarekiko kultura eta dieta izugarriak.

Mintzaldiaren lehen zatian Sara Maldonado aritu zen, eta alde teknikoan azaltzea tokatu zitzaion. Honela, gizakiaren metabolismoaren inguruko azalpenak eman zituen, eta baita gaixotasunaren inguruko datuak.

Sindrome Metabolikoa, obesitatearekin, hipertentsioarekin eta insulinarekiko erresis-



Ezker-eskuin: Sabino Padilla, Sara Maldonado eta Andoni Imaz. i.e.

tentziarekin lotua dago. Izan ere, arazo hauen ondorioz sortzen dira gaixotasun kardio-baskularrak eta II motako Diabetesa. Nahiz eta batzuetan, arazo hauek herentziazkoak izan, kasu gehienetan, %95ean, kanpoko arrazoiengandik datorren ondorio dira. Bestalde, adina aurrera doan heinean, kopurua handituz doa. Hala ere, kez-kagarritzat jotzen dituzte, nerabeen arteko datuak: 12-19 urte bitarteko gazteen %4ak baitu Sindrome Metabolikoa. Horren arrazoiak, «kirol gutxiegi egitea da» Maldonadoren esanetan. Bigarren zatian Padillak

azaldu zuenez, «gizakiaren bizitzan, aktibitate fisikoaren eta elikaduraren arteko oreka bat eman behar da, eta gaur egun, oreka hori hautsia dago». «Aurrera egiteko jakin beharra dagoena da, zertarako gauden diseinaturak».

Padillak atzo azaldu zenez, «Gizakiaren gorputza prestakuntza berezi bat du, eta behar duena baino gehiago jaten bada, hau metatzen joaten da, badaezpada, ez daukanerako. Baina, metatuz eta metatuz joaten bada, eta ez gastatu, hor desoreka bat sortzen da, eta grasa kopurua gehituz doa».

SABINO PADILLA ▶ DOKTOREA MEDIKUNTZA ETA ZIRUGIAN

«Elikaduraren eta ariketa fisikoaren arteko oreka hautsia dago»

EHUko irakaslea da egun Sabino Padilla. Atzo, Sara Maldonadorekin batera *Sindrome metabolikoa: egungo bizimoduaren ondorioa* hitzaldia eskaini zuen Leidorren. Hala, jardunaldia baino lehen hitz egin zuen TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN.

Nola definituko zenuke laburki Sindrome Metabolikoa? Zenbait anormalitatearen multzoa da. Eta denak batera emanda, gaisotasun bilakatu dira. Hala, hauek, estuki lotuta daude, gehiegizko sedentarismoarekin eta elikadur txarrarekin. **Egoera hau okerrera al dago?** Bai noski. Lehen, gizarte ame-

rikarraz ezagutzen genuena egun, mediterraneoko lurraldeetara ere etortzen da.

Hau nola moztu daiteke? Oinarrian dagoen arazoa gelditu behar da. Eta hau sedentarismoa da, horretarako eguneroko kirola egin behar da. Eta bestetik, ahalik eta elikadura onena egiten saiatu behar dugu.

Zuk profesionalekin lan egiten duzu, non dago, hauen eta pertsona arruntaren arteko erdibidea?

Diseinaturak gaudenaren araberakoa egin behar dugu. Milaka urtetatik hona, gu, ibiltzeko, eta zenbait elikagai jateko eginak gaude. Hala, garai haie-



I. GARCIA

tauto mugimendu eta elikatzeeko modura itzuli behar dugu.

Jendea arazoaz kontzientziatua al dago?

Jendeak, proposatzen dioguna erraza bada egiten du baina bestela ez. Esaterako, kirolariek karbohidratoak jaten ikusten dituzte, eta beraiek berdina egiten dute, baina ondorengo kiroliek ez, kasu egiten hasten dira, ondorioa gaixotasun bat denean. ◀

GAURKO EGITARRUA ▶

LEIDOR ARETOA

09:30-10:15. 4. hitzaldia: *Jarduera fisikoaren bidez osasuna sustatzeko aukerak eta erronkak: Kanadako esperientziaren gainerako gogoretak.* Txostengilea: Enrique Garcia Bengoetxea, Montreal-go McGill Unibertsitateko irakaslea (Kanada).

10:15-11:00. 5. hitzaldia: *Kirola egiteak osasun gastuetan duen eragina.* Txostengileak: Mario Lloret Riera, Kataluniako Kirol Idazkaritza Nagusiko Kirol eta Osasun Unitateko arduraduna, Josep Maria Pons, Kataluniako Generalitateko Osasun Publikoko Zuzendaritza, Oscar Garcia Figueras eta Mikael De Rhan, Atlas Sport Consulting-etik.

11:30-12:15. 6. hitzaldia: *Administrazioaren esku-hartzeak: Oinez Bizi.* Hizlaria: Maria Luisa Gutierrez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Plangintzarako zuzendariordea.

12:15-13:00. 7. hitzaldia: *Osasun eta Kontsumo Ministerioaren NAOS estrategia-ren helburuak, nutrizio gidak eta jarduera fisikorako gidak.* Juan Manuel Ballesteros, Elikadura Segurtasunerako Espainiako Agentzia.

USABAL KIROLDEGIA

15:00-17:30. Tailer praktikoak. (Usabal Kirolgunerako autobusak Leidorretik aterako dira.

1. go tailerra: Jarduera fisikoa nola aholkatu. Dinamizatzailea: Iñaki Iturrioz Rosell, Irungo Udaleren Kirol Patronatu kirol teknikaria.

2. tailerra: Teoriatik praktikara: jarduera fisiko egokituak. Dinamizatzailea: Alicia Figuroa, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioko zuzendari teknikoa.

3. tailerra: Teoriatik praktikara: jarduera fisiko egokituak ur ingurunean. Dinamizatzailea: Javier Aymerich, EHUko irakaslea eta ezinduentzako igeriketan aditua.

4. tailerra: Zaharrentzako parkeak: praktikak berariaz prestatutako instalazio batean. Dinamizatzailea: Bilboko MAS Commerce enpresa.

18:00-20:00. Bisita gidatua. **20:30:** Afari ofiziala Tolosan.



Jesus Mari Alustiza margolariak kolore joko bitxiak lortzen ditu, ukitu artistikoa gehituz. Eskuinean, Jose Luis Bellosoren Lihura dekorazio denda. N. URBIZU

Klasikoa, baina ausarta

Altzari nahiz etxeko antolakuntza klasikoa nahiago omen dugu; koloreetan, berriz, kontraste handiak, bi kolore oso ezberdinekin konbinatuz

NEREA URBIZU

Ezkonberriak, etxeko altzari eta koloreez aspertu den bikotea, gurasoen etxetik irten berri den gazteren bat, etxe berria erosi dutenak... Askok urte askotan behar ez dituzten zerbitzuak behar izaten dituzte noizbait: espazio berriei beste itxura bat emateko garaian, hain zuzen.

Ikea dugu aukeren artean ezagunenetakoa, baina inguruan ere badira hainbat kalitatezko denda. Askotan ere, «aurreztu nahian» edo, etxeko hormarik handiena eta gehien ikusten dena pintatzen hasten dira animatuenak, dekorazio aldizkari engainagarrietan ikusitako kolore eta efektuak haien kabuz lortuko dituztelakoan.

Jose Luis Bellosoren Lihura denda dugu Tolosako dekorazio dendetako bat; bertan etxebizitzetako antolakuntzak, altzari nahiz etxeko edozein txokotan jar daitezkeen hainbat detailtxo eta gomendio daukate eskura.

Etxebizitzari beste ukitu bat eman nahi dion horrek zein tamaina, kolore, material edo espazio izango duen jakin gabe, dendara joan eta «azkenean gehienek klasikoa dena eskatu eta jarri egiten dute», dio Jose Luis Bellosok. Baina, «aldi berean, gutxinaka, zertxobait ausarta jartzen hasi dira, gauza berriak egiten; hala nola, etxetan horma gutxiago jartzen». Dena dela, klasikotzat zer ulertzen duen galdetzean, «antolakuntza batez ere ikusten da: ziurrenik, amonaren, amaren eta ilobaren etxean, lehenengo sofa, mahaitxoa eta telebista daude. Horrek ez du zertan horrela izan behar». Aldi berean,

ausartenak 40 urte ingurukoak direla aitortzen du diseinatzaileak: «ekonomikoki hobe egon daitezke, eta normalean altzariak aldatzeko garai ona izaten da».

Ikea, askorentzat paradisua izan daiteke, prezioengatik eta baita diseinuari dagokionez. «Ondo dago denda hori, Europako estatu askoren mentalitatea dauka: Europan orokorrean altzairuak 10 urtero aldatzen dituzte, eta hemen ez». «Ikea ekonomikoa da, oinarrikoa. Nire ustez garai batzuetarako balio duen zerbait dela». Ezin berdina esan kalitateaz, «asko nabaritzen baita, baina baliabide bezala ondo dago».

Diseinatzailearen arabera, orokorrean «gehiago gastatzen dugu komunean eta sukaldetan egongelan baino: azkenean, denbora gehien ematen dugun lekua sofana da, baina ez da horretan gehiegi gastatzen. Bainuontzi batean gehiago

gastatzen dute askok». Azken urte hauetan bengea asko ikusi den egurra da, baina «guretzat hori jada pasatuta dago: orain laka eta dizdirak, egurra-ekin nahasketak egiten dira eta hori eskatuko du jendeak hemendik urte batzuetara».

Kolorea, oso garrantzitsua

Jesus Mari Alustiza margolariak eskaintzen dituen kolore eta argitasunak bitxiak dira oso, ukitu artistikoa ere lantzen baitu tolosarrak. Bere esanetan «bezeroak orain konbinazioak nahi ditu: kolore bizi eta indartsuak kolore ahulagoekin jolastuz». Ez da kolore bat zehazki erabiltzen, «baina txuri hautsia delakoak dezente margotzen dugu, baina beti beste kolorekin batekin».

Jesus Mari Alustiza Hernanin, Victor Goikoetxearekin hasi zen duela 15 bat urte artistikoki margotzeko nahi hori bideratzen. Egun, Gasteizen jasotzen ditu eskolak Decorn enpresako margolariekin, etxeko edozein horma edertzeko eta ukitu artistiko bat izateko.

Aurten, margolariaren arabera «hormako papera berriz ere hasi da, indar handiarekin. Gainera kalitate ezberdinetakoak, eta egitura, kolore askotakoak». Horrez gain, «kolore konbinazioa eskatzen dute, bai helduek eta baita gazteek ere». Hormaren ehundurari dagokionez, «disoa da eskatzen dutena, koskarik gabea hain zuzen». Moldura azken bi urteetan jarri izan dute, baina «gero eta gutxiago jartzen ari da, ia jartzen ez dela ez esateagatik».

Kontua, duela 15 urte izokin-kolorea erabiltzen zela gehienbat, aurten kontrasteak, baina altzariarekin eta materialekin batera urteetan zehar aldatzen doan zerbait da. Hurrengo urtean zein izango den ezin jakin.

Espezialitateak

Enpapelatuak
Trapeatuak
Glaseatuak
Iztukadurak
Mural infantilak
Imitazioak
• marmola
• egurra
Patinak
Fatxadak
Pintura orokorrean



Larramendi kalea 3E -1M
Tel.: 943 672 248 • 670 420 380
20400 TOLOSA (Gipuzkoa)

www.alustizapintores.com
info@alustizapintores.com

Jose Luis Bellosa

UJLD

proiektuak
obra zuzendaritza eta altzarigintza

arquitectura-de-interior

Erremontari, 5 behean / 20400 Tolosa-Gipuzkoa / Tel.: 943 67 52 48 / Faxa: 943 67 34 58 / joseluisbellosa@telefonos.es

ORiA S.L.

zeramika- bainua

**BEROGAILU, GAS ETA
ITURGINTZA INSTALAZIOA**

Tel.: 943 67 32 89 • Fax: 943 69 71 20
Euskal - Herria, 4 Behea 20400 IBARRA

ALDABA ▶ UGANE AUZOKO JAIK



Aurten katerin zerbitzua izango da auzoko bazkarian. OLAIJA ESKITXABEL

Txirrindulari igoerarekin jaien hasiera

Auzoan borondatez egindako jaiak bihar izango da, 12:00etatik aurrera

NEREA URBIZU

Aurten ere Aldabako Ugane auzoan bizi direnek prestatu dute egun berezia. Bihar izango da egun hau: VIII. Txirrindulari igoera, dantzariak eta edatekoak ez dira faltako.

12:00etan, Zubiaurretik aterako da txirrindularien igoera: parte hartzaileek bi kilometro igo beharko dituzte. Ondoren, Ikaztegiako dantzariak arituko dira dantzan. Ez da etenik izango, izan ere, jarraian Hernaniko bertsolari gazteek kalea alaituko dute. Bitartean pintxoak ere dastatu ahal izango dituzte ikusle eta entzuleek.

14:00etan bazkaria antolatuko dute. Beste urteekin alderatuz,

aurten katerin delakoa izango da, eta momentuz 70 lagunek eman omen dute izena. Ondoren umeentzako betiko jolasak izango dira. Ezin ahaztu egunean zehar izango diren Ainara eta Miren trikitalariak, hauek jarriko duten giroa ez da makala izango eta. Barra bat ere izango da, edaria hartu ahal izateko.

Ez da ahaztu behar ere bertan egiten den mojitoa eta garagardoa izango direla. Uganen bizi diren herritarrek borondatez eta era xumean antolatutako egun borobila da biharkoa, festa egun batean falta ezin daitekeena egonda: musika, giroa, jolasak, bertsoak eta kirola.

ALEGIA ▶

Irakurketari buruzko hitzaldi eta gomendioak

Irakurketaz gozatzen izeneko hitzaldia dago gaur Yolanda Arrietarekin, 6 urte artekoen gurasoentzat. Alegiako Udal Liburutegian izango da, 14:30etik 16:00etara. Hitzaldia 3 saiotan izango da: hurrengoan, hilaren 27an.

ALEGIA ▶

1956-57eko jaiotako enafaria izango da

Alegian 1956 eta 1957. urteetan jaio direnen enafaria antolatu dute. Azaroaren 4an egingo dute 21:00etan, Intxurre jatetxean. Afaldu nahi duenak 2101 0020 1401 2559 1370 kontuan 35 euro sartu behar ditu, izen abizenak zehaztuz. Izena emateko azken eguna hilaren 27a izango da. Afarira joateko Alegiako bertakoa izan behar da, edo bestela kanpoan bizi dena baina bertan jaiotakoa izatea. Informazio gehiagorako honako telefonoa dago: 616 57 41 38.

AMEZKETA ▶

Barkamena, Berarako bidaia ez zelako egin

Amezketatik Berarako autobusa antolatu zuen Gazte taldeak eta Euskara Elkarrekin; azkenean, ordea, ez zen autobusik izan, 13 lagunek eman zutelako izena. Bi talde hauen helburua ez zen dirua lortzea, baina 15 lagunekin Berara autobusa antolatzea ere «ez zen zentzuzkoa». HITZAREN bidez izena eman zuten horiei barkamena eskatzen dute taldekiek.

IKAZTEGIETA ▶ PISTA

Olaberria Bordeleko Grand Prix-en ariko da

Larunbatean izango ditu proba guztiak

N. URBIZU

Leire Olaberria ikaztegiatarrek berriz hasiko du pistako denboraldia. Bordeleko Grand Prix de l'humanite izena du txapelketak, Munduko Koparako balioko duena, eta asteburuan zehar burutuko du.

Eustrak-Duranguedako talde profesionalarekin ariko da ikaztegiatarra bertan, sortu berri den pistako talde euskaldunarekin, alegia.

Larunbatean izango da Leire Olaberriaren pistako proba: espero dituzten emaitza onak Pekingo 2008 eta Londreseko



Leire Olaberria. HITZA

2012ko Olinpiar Jokoetan parte hartzeko aukera eman ahal diezaioke Leire Olaberria txirrindulariari.

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA

Bi bilketa berezi, gaur

Olio eta hondakin arriskutsuak jasoko dituzte

ERREDAKZIOA

Gaur etxeetako olio bilketa egingo da. Horrekin batera beste zerbitzu bat eskainiko du Urola Erdialdeko Mankomunitateak: hondakin arriskutsuen

bilketa (pinturak, itsasgarriak, disolbatzaileak, autoentzako erabilitako olioak, pilak, tonerak, sakelekoak, aparatu elektriko txikiak). Honetarako furgoneta izango da 10:00etatik 11:00etara.

LOGOPEDIA ZERBITZUA
Ebaluazio, diagnostiko eta tratamendu logopedikoa

- Artikulazio arazoak
- Irakurketa-idazketa arazoak
- Hizketa arazoak
- Irensketa ez-ohikoa
- Hizkuntza atzerapenak

tel.: 639 24 06 54 ALEGIA

HOL - ATZ

info@hol-atz.com • www.hol-atz.com
Tel.: 943 69 30 63 • Faxa: 943 69 40 59
Urtaki ind., 30 - 20150 ADUNA

PIPIEN AURKAKO EGUR ETA ALTZARI TRATAMENDUA

zURE HIZKUNTZ eskubideak babesteko

eLEBIDE
Hizkuntz Eskubideak bermatzeko zerbitzua
Servicio para la garantía de Derechos Lingüísticos

elebide. s. Herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko zerbitzua. fig. Elebitasunerako bidea. Hizkuntzari bide egiteko zerbitzua. Iñakik Elebidera jo zuen hizkuntz eskubide urraketa bat zela eta, kexa jartzera.

elebidun. adj./iz. Bilingüe. elebitasun. iz. Bilingüismo. elebitza. iz. Bilingüismo.

elebide@ej-gv.es WWW www.euskadi.net/elebide Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 VITORIA-GASTEIZ 012

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza DEPARTAMENTO DE CULTURA Viceconsejería de Política Lingüística

MARTIN ZABALA ▶ SAGARDOGILEA

IMANOL GARCIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen txapelketa ofiziala eskuratu du berriro ere Adunako Zabala sagardotegiak. Bost alditan egin da lehiketa eta bigarren urtez jaso du saria. Sagardotegiko Martin Zabalarekin (Aduna, 1969) aritu gara hizketan, sariari eta sagardogintzari buruz.

Nola sartu zinen sagardogintzaren munduan?

Bertan hasi ginen. Aitaren aitona Andoainean zeukan sagardotegia. Sagardoa egiten betidanik aritu gara etxean. Momentu batean erabaki behar izan genuen ikulua handitzea edo sagardotegia jartzea. Sagardotegia aukeratu genuen eta hor jarraitzen dugu.

Gustura jasotako sariarekin, ezta?

Bai, oso gustura. Aurreneko urtean ere finalean sartu ginen eta hortxe gabilza lehian.

Zein da sekretua sariak irabazteko?

Sagarra eta lana. Sagardoa ahal dugun ondoena zaindu eta bertako sagarrekin egiten saiatzen gara. Hortik aurrera, jakingo banu zein den sekretua beti ona ateratzeko...

Ez da urtero emaitza berdina ateratzen, beraz.

Sagar berdinarekin eginda ere ez da sagardo berdina ateratzen.

Zerren baitan dago nolako sagardoa atera?

Temperatura, giroa... Sagarrak, azken batean. Egiten duen bero eta euriaren arabera, modu bateko edo besteko sagarra ateratzen da. Mila faktore daude. Beti berdin egin arren, ezberdin ateratzen da.

Zer motatako kupeletan egiten duzue sagardoa?

Gehienak herdoilezineko kupelak ditugu.

Alderik badago kupela egu-

«Aise edaten dena eta beste tragoa azkar eskatzen duena da sagardo ona»

Adunako Zabala sagardotegiak berriro eskuratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen txapelketa

rezkoa izan edo herdoilezinekoa?

Nik ez nuke esango botilan sartuta dagoen sagardo bat zein motatako kupeletan egon den. Batzuk esaten dute antzematen diotela. Herdoilezinean sagardo ona baduzu, jendeak gustura edaten du. Hori bai, egurrak ere beti emango dio bere grazi bat.

Herdoilezineko kupelak abantaila gehiago ditu?

Prozesua gehiago kontrolatzen duzu, garbitasuna ere handiagoa da. Hezetasunarekin ez duzu egurrezkoen arazorik izaten. Egurrezko kupeletan zainketa zailagoa da.

Zer eskatzen diozu sagardoa-ri?

Aise edaten dena eta beste tragoa azkar eskatzen duena da sagardo ona.

Sagardotegi denboraldian bietatik edaten du bezeroak?

Bai, bietatik edaten dute. Ho-

DI-DA BATEAN ▶**Sagardoa ez den beste edari bat? Cava on bat.**

Zer janarekin gustatzen zaizu sagardoa? Postrea ez beste janari guztiekin.

Botilakoa edo kupelekoa?

Behin eserita, ez altxatzeagatik botilakoa bera.



I. GARCIA

rek ere konparatzeko eta saltsa pixkat sortzeko ere balio izaten du.

Zer lanetan ari zarete orain sagardotegian?

Sagardoa egitearen hasierako lanetan gaude.

Badirudi sagardotegietan hilabete batzuetan bakarrik egiten duzuela lan.

Urte osoan izaten da lana eta lanez lepo ibiltzen gara. Orain sagardoa prestatzen ari gara, gero sagastiak txukuntzen, gero upeletegiko lanak, gero banaketak, lan komertziala...

Sagardotegietara joateko joerak goia jo du?

Gu espero dugu jende gehiago etortzea. Oraindik aldaketak egiten ari gara. Joera ez da jende pila sartzearena, baizik eta bezeroei zerbitzu hobea ematearena. Aldaketa handiak izan dira azken urteotan: toki aldetik, txukuntasunaren aldetik... Ahal dugun zerbitzu onena eskaini nahi dugu.

Sagardotegien xarma sortzen den giro berezi horrek ere ematen du: zure lekutik altxatzea, beste mahaietako jendeekin solasean aritzea...

Toki sozial bat da, baina bere neurrian ere. Ez du izan behar diskoteka batera joatea bezala. **Zenbat edaten du batez beste bezero bakoitzak?**

Bakoitzak bi litro edo hartzen ditu. Sagardotegira etortzen denak 30 trago inguru edaten ditu. Gero ere kontatu behar da edalontzitik kanpora eroritzen dena ere.

Aspertzen zara sagardoa edateaz?

Asperu ez. Tarteka gustatzen zaigu beste zerbait edatea ere, ardoa, esaterako. Harakinak ez du beti haragia jaten.

Nolako sagardoa dator?

Nahiko itxura politetako datorela esan dute enologoek. Lehengo urtean baino alkoholez baxuagoa izango da.

POLITIKA ▶

Eskualdeko 23 lagun epaitzen ari dira, Gazteluko Kultur Etxea itxi ondorengo protestak direla eta

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko 23 laguneren aurkako epaiketa burutzen ari da egunotan Gipuzkoako Auzitegian, Donostian. 1999an Gazteluko Kultur Etxearen itxia eta bost langileren kaleratzearen ondoren gertatutako protestekin du zerikusia epaiketak. Akusazioek 23 lagunei — tar-tean bost langile kaleratuak — justiziari traba egitea, mehatxu


eta behartze delituak leporatzen dizkiete eta 3 eta 2 urte arteko espetxe zigorrak eskatzen dituzte beraientzat. Fiskaltzaz gain, akusazio partikular bezala parte hartzen dute Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak eta Pilar Zubiarrain ordezkatzeko duen abokatuak.

Azken bi egunetan inputatuek zein lekukoek deklaratu dute. Zenbait inputatuek protestak burutu zituztela azaldu

dute, baina mehatxurik edo behartzerik egin zutenik ukatu dute. Beste inputatu batzuk protestetan ez zutela parte hartu azaldu zuten. Defentsa lanetan ari diren abokatuak «edo zein kaleratzean gertatzen diren ohiko protestak direla eta delitu zantzurik ez dutela» diote.

Kultur Etxea itxi zenean Gazteluko Udaleko abokatuaren Pilar Zubiarrain. Bere deklarazioan azaldu zuenez, «oso gaizki bizi izan zuten» garai hori eta bere bulegoaren eta etxearen aurrean protestaldiak burutu zituztela azaldu zuten.

Atzo akusazioak frogak aurkeztu zituen. Gaur, ziurrenik, epaiketaren azken eguna izango da. Akusazioak behin-betiko delitu eskaera zehaztu behar du inputatuentzat eta defentsako abokatuak beraien argudioak plazaratuko dituzte.



Salgai (Tolosa) Larramendi kalea. 100m2. Igogailuarekin. Eraberritzea.
Salgai (Tolosa) La Estrella. 93m2. Aparta. Garajea aukeran.
Salgai (Tolosa) Korreo kalean 75m2. Eraberritua. Igogailua eraikitze lanetan.
Salgai (Tolosa) K/Nagusian 50m2-ko atikoa. Eraberritua.
Salgai (Tolosa) Letxuga kalean 50m2-ko atikoa. Eraberritua.
Salgai (Ataun) San Gregorio. 60m2. Eraberritua estreinatzeke.
Salgai (Albiztur) Baserria. 180m2-ko bi solairu. Eguzkitsua bitekin
Salgai (Zumarraga) Baserria. Bizitzera sartzeko prest. 600m2 lursaila barne. Etebizitzak 450m2.
Salgai (Calahorra) Bizitzera sartzeko prest dagoen etxea.
Alokairua Lokal komertzialak Tolosako gune apartetan.
Alokairua Pabilioiak Asteasu, Aduna eta Tolosako Usabalen.
943 6971 96 • 675 705 268
Korreo Kalea 50

TOLOSA ▶ KULTURA



Isidro Larrañaga Orkestrako taldeetako bat, Castelfidardon. HITZA

«Ezin da beti irabazi; baina pozik gaude egindako lanarekin»

Italiako lehiaketan parte hartzeko araudi berria zela eta, hiru zatitan banatu zuten Isidro Larrañaga Orkestra

NAIARA GARZIA

Castelfidardoko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan lortutako emaitzak ez dira oso onak izan (laugarren, zortzigarren eta hamargarren gelditu dira), baina Italiatik Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrakoak esku hutsik bueltatu direla esatea ez litza-teke zilegi. Iñigo Asensio orkestrako kidearen ustez («ezin da beti irabazi; baina pozik gaude egindako lanarekin»). Orkestran adin ezberdinetako jendea dagoenez, gaztetxoentzat lehenbiziko aldiz horrelako lehiaketa bat ikusteko aukera izan da. «Lehiaketa hauetako mundua nolako den ikusi dute», dio Isitxo Larrañaga orkestrako zuzendariak. Txapelketa batean parte hartzeaz gain, hiru egun musikaz blai bitzitu dituzte: haien lana prestatzen eta aldi berean musika ona entzuten.

Castelfidardon esku hartzeko arauak aldatu zituztenez Isidro Larrañaga orkestra hiru zatitan banatu zuten, bestela ez baitzeukaten parte hartzerik. Horregatik, Isitxo Larrañagaren ustez, «ezin dugu esan Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak lehiaketan parte hartu duenik, Italian orkestrak elkarrekin ez baitu parte hartu».

Arau hau izan da aurtengo lehiaketaren ezaugarriarik azpimarragarriena, aurreko ediziotik erabat aldatuta harrapatu baitute txapelketa. Musikariaren muga 2-12 bitartean jarri zuten zuzendaritzak, baina tolosarek ez zuten inolaz ere espero arau honek izango zuen ondorioa. «Taldeen artean ezberdintasunak egongo zirela bagenekien, baina ez genuen pentsatzen gehienak bikoteak izango zirenik». Arau horiek kontutuan hartuta ere taldeak joango zirela pentsatzen zuten, eta hor gertatu da ustekabea. «Norgehiagoka taldekoa baino, indibiduala izan da. Bikoteak eta hirukoteak ziren musikari gehienak».

Lehiaketako maila ikaragarria izan da. Partaide gehienak ekialdekoak izandu dira eta kasu askotan, gainera, profesionalak. Araudi berri honen ondorioz lehiaketan sortutako desoreka begibistan gelditu da. «Aldaketa gure orkestra-

rentzat erabat txarra izan da. Orain arte beti joan garen txapelketetan orkestra osoek hartu dute parte, eta beste orkestra batzuren aurka aritu gara lehiari, hau da, formatu berarekin». Eragozpen honen aurretik izan zituzten zalantzak konstatu dizkigu, ez baitzekiten berrikuntza horri talde bezala aurre nola egingo zioten. «Batzuk jotzen zeuden bitartean, haiei begira geudenak gehiago sufritzen genuen». Elkartasuna eta berotasuna ezin hobek izan dira, beraz.

Egindako lanarekin gustura gelditu zirenez, emanaldia amaitu ondoren nerbioak alde batera utzi eta aterpean akordeoi festa bat egin zuten. Lehiaketan pasatako tentsioak ahaztu, eta Tolosatik 2.000 kilometrotara haien euskal festa propioa egin zuten, etxera itzuli baino lehen denon artean soinuarekin arin-arinak eta fandangok joaz.



LIZARBI

Kutxa, mahai, aulki eta b.

Altzariak • Zurgintza orokorra

Tailakieskuz eginak Zaharkinen berriztatzea

San Esteban auzoa
Tel/Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

LEITZA ▶ PILOTA



Barriola eta Bengoetxea VI, Lau t'erdian aurrera

Barriola gaur ariko da Azkoitiako Gurean; Bengoetxea VI, berriz, bihar, Labriten

N. GARZIA

Asteburu borobila izanen da heldu dena Leitzako pilota zaleentzat. Alde batetik, gaur gauean Abel Barriola Olaizola I.aren aurka ariko da Azkoitiako Gurea frontoian. Bestetik, bihar arratsaldean, Bengoetxea VI.k Eugiren aurka jokatu du Labriten.

Abel Barriolak herenegun egin zuen material hautaketa Azkoitian, eta bera eta aurkariaren arteko pilotak oso antzekoak direla esan zuen. «Ni-reak bizixagoak dira, baina ezberdintasuna oso txikia da». 103 eta 103,8 gramotako lotea aukeratu zuen Barriolak;

103, 8 eta 104, 7 gramotako Olaizola Ik. Irabazten duenak Patxi Ruizen aurka jokatu du, eta oraingoz favoritoa Abel Barriola da.

Bengoetxea VI.ak eta Euguik, berriz, Labriten aukeratu zuten materiala. Aoitztarrak 104,4 eta 105,5 gramotako pilotak aukeratu zituen eta leitzarrak, 104,1 eta 106, 5 gramotakoak. Adinaren ezberdintasuna handia izan arren (Bengoetxea VI.ak 22 urte ditu, 35 Euguik), aurrez aurre ariko dira larunbatean. «Partida zaila izanen da Labritekoa, bera distantzia horretan txapelduna izandu da eta oso fuerte dago fisikoki».

LEITZA ▶

DV Torneoa gaur, 19:30etik aurrera

Gaur arratsaldeko 19.30ean DV Torneoa jokatu da Leitzan. Bi maila ezberdin ikusi ahaliko dira. Onsalo aresolarrak Iruritarekin jokatu du Baez II.a eta Mitxelenaren aurka senior mailan. Etorkizunekoak mailan, berriz, Gorka eta Beroiz, Atxotegi eta Otxandorenaren aurka.

LEITZA ▶

Bengoetxea VII.a, Casteldiscarren, Aragoiko Irekian

Bengoetxea VII.a eta Jon Gorriti, Mikel eta Zabalaren aurka ariko dira gaur Castiliscarren, Aragoiko Irekiko Lehenengo edizioan. Ibai Bengoetxeak bi txapelketa irabazi ditu: Errenteriako Binakako Txapelduna izan zen 2005. urtean eta Oñatiko Binakako, 2004. ean.

iragarki laburrak ▶

SALGAI
Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko llantak eta tebuja. Egoera oso onean. 14.000 euro. Telefonoa: 943 65 41 43.
Etxebizitza. Amezketan eraikuntza berriko etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea bainugela eta trastelekuarekin. Interesgarria. Deitu 637 80 60 44ra.

LANA
Ileapaintzailea. Ileapaintzailea behar da Tolosako ileapaindegi batean. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 943 67 03 43.
Zaintzailea. Gazte brasildarrak adineko jendea zainduko luke «interno» estiluan. Interesatuak deitu 663 70 47 73 telefono zenbakira.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 20a, ostirala ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzera

17

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Jarduera Fisikoa, Kirola eta Osasunari Buruzko Nazioarteko Kongresua. Gaur, Leidorren: 09:30-10:15: *Jarduera fisikoaren bidez osasuna sustatzeko aukerak eta erronkak: Kanadako esperientziaren gaineko gogoetak* hitzaldia. Enrique Garcia Bengoetxea; 10:15-11:00: *Kirola egiteak osasun gastuetan duen eragina* hitzaldia. Mario Lloret Riera, Josep Maria Pons, Oscar Garcia Figueras eta Mikael De Rhan; 11:30-12:15: *Admistrazioaren esku-hartzeak: Oinez Bizi* hitzaldia. Maria Luisa Gutierrez; 12:15-13:00: *Osasun eta Kontsumo Ministerioaren NAOS estrategiaren helburuak, nutrizio gidak eta jarduera fisikorako gidak* hitzaldia: Juan Manuel Ballesteros. Usabalen: 15:00-17:30: *Jarduera fisikoa nola aholkatu* tailerra. Iñaki Iturrioz Rosell. *Teoriatik praktikara: jarduera fisiko egokituak* tailerra. Alicia Figueras. *Teoriatik praktikara: jarduera fisiko egokituak ur ingurunean* tailerra. Javier Aymerich. *Zaharrentzako parkeak: praktikak berariaz prestatutako instalazio batean* tailerra. Bilboko MAS Commerce enpresa. 18:00-20:00: Bisita gidatua; 20:30: Afari ofiziala. **Villabona.** Onddo Gazte Asanbladak *Gaztebe duin baten alde* manifestakzioa egingo du 19:00etan, eta 21:00etan musika kontzertuak. **Tolosa.** Zeligueta-Urroz mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek iganderako. Itzaga mendia igoko dute. 6 orduko ibilaldia da. Izen-ematea, elkartearen bertan (Gudari 5. 943 65 27 89). **Tolosa.** Abesbatza Lehiaketako sarrerak salgai TEEK (CIT) Emeterio Arrese kalean 2 duen bulegoan. **Tolosa.** Sukru Karakus-ek antolatu eta Fronton kafetegia, Tolosako Udalak eta Artelekuk lagundutako *Destambul kolorek, soinuk, zaporek* jardunaldien baitan, turkiar afaria hilaren 26an, Fronton jatebean. Txartelak 20 eurotan eskuratzeko

Guztiontzat kafe ona

VILLABONA ▶ SETEM Hego Haizea erakundeak Bidezko Merkataritzaren inguruan jardunaldiak antolatu ditu



500 haur inguruk ikusiko dute atzo eta gaur artean Kafe Haurra antzezlan. HITZA

ERREDAKZIOA

SETEM Hego Haizea GKE-ak Bidezko Merkataritzaren herri txiroetako milaka ekoizleei soldata duin bat bermatzen dien merkataritza alternatibo bat mezua biztanleengan zabaltzeko helburuarekin hainbat ekintza antolatu ditu Villabonan, Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Hala, atzo Zizurkil Goiko San Millan ikastetxe-ko, Anoetako eta Irurako Ikastoleto eta Adunako eskolako Lehen Hezkuntzako haurrek *Kafe Haurra* izeneko atzezlan ikusi ahal izan zuten. Paraiso Antzerki taldearen eta SETEM Hego Haizea erakundearen elkarlanaren emaitza da antzez-

lan hau eta ikusle txikiek Nika raguako kafe-sail batean bizi den Pedritoren bizitzaren bitartez, munduko beste txokotan zer nolako egoera bizi duten jakin ahal izan dute. Horrela, SETEM Hego Haizeak eta Paraiso taldeak etxeko txikiei «ohiko merkataritzak ezkutuz dituen baldintzak» ezagutarazi nahi dizkie, bide batez Bidezko Merkataritzaren bitartez milaka ekoizle horiei soldata eta bizi-baldintza duinago bat eduki dezaten laguntzen denaren mezua ere helaraziz. Atzokoan Zizurkil Goiko, Adunako, Anoetako eta Irurako gaztetxoek ikusteko aukera izan bazuten, gaur, 09:30ean, Berastegiko ikastetxe-ko, Villabonako Jesusen Bihotzako eta

Alkizako ikastetxe-ko gazteen txanda izango da. 11:30ean, berriz, Villabonako Flemingeko gaztetxoak joango dira Gurea antzokira antzezlanaz gozatu eta ikustera. Orotara, atzo joan zirenak eta gaur joango direnak konuan hartuta, 500 haur inguruk ikusiko dute *Kafe Haurra* antzezlan. Bestalde, *Kafe Ona Guztiontzat Ona* erakusketa antolatu du SETEM Hego Haizea erakundeak. Gurea antzokian jarri dute, eta astelehenera arte izango da ikusgai, 18:30etik 20:30ak arte eta 12:00etatik 14:00etara igandean. Honen bidez bisitariak Bidezko Merkataritza zer den ezagutzera eman nahi dute, kafearen ekoizpenean sakonduz.

aukera, Frontonen edota Saikin kafetegian.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan. **Ibarra.** Zudaireko udalekuetako argazki erakusketa irekia jarriko du Txiribitu aisialdi taldeak, 19:00etatik 21:00etara parrokiako lokaletan. **Tolosa.** *Destambul kolorek, soinuk, zaporek* jardunaldien baitan, 100 margolanen osaturiko *Topaketa* erakusketa Leidor aretoan azaroaren 12a bitarte, eta Fronton jatebean azaroaren 17ra arte. **Tolosa.** *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

MUSIKA

Tolosa. Kerobia eta Etxe Bonberenean, 22:30ean. **Tolosa.** San Esteban auzoko XIX. Kutur Astearren baitan, 23:00etan, Nogata Donla afrikar perkursio ikuskizuna. Ondoren, DJ Talo eta Aritz Sound Sistem.

ZINEMA

Tolosa. *World Trade Center* filma, 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112. **Tolosa.** Tolosa, MI. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aitor Otamendi (Villabona).
Atzo 11 urte. Txinbo portatu!
Familian partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitzza
agurren tarte

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...